Lan-eskaintzen erregistroa 2026ko martxoan

• ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINTZA KOPURUA

Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan 1.074 eskaintza erregistratu dira 2026ko martxoan, otsailean baino 60 eskaintza gutxiago eta 2025eko martxoan baino 194 gutxiago.

• LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketako Administrazio Unitatearen lurralde historikoari dagokionez, 2026ko martxoan 198 eskaintza erregistratu dira Araban, 437 Bizkaian eta 439 Gipuzkoan. Beraz, eskaintzen % 18,44a Arabako KAUetan erregistratu da, % 40,69a Bizkaian eta % 40,88 Gipuzkoan.

Eskaintzaren Lurralde Historikoa



Aurreko hilabetearekin konparatuz, Araban bakarrik egin du gora eskaintza-kopuruak, % 1,54 igo baita (+3 eskaintza). Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, eskaintzak jaitsi egin dira, % 4,17ko eta % 9,11ko jaitsiera erlatiboarekin, hurrenez hurren (19 eta 44 eskaintza).

Iazko martxoarekin alderatuz, Araban bakarrik igo da berriro eskaintza kopurua, % 1,02 (+2 eskaintza). Gipuzkoan % 27,32a jaitsi da (-165 eskaintza) eta Bizkaian % 6,62a (-31 eskaintza) 2025aren aldean.

• ESKAINTZAREN OKUPAZIOA

Okupazio-profilei dagokienez, EAEn eskaintza gehien erregistratu dituen profila teknikari zientifikoena izan da 206 eskaintzekin (guztizkoaren % 19,18). Ondoren, zerbitzuen profilari dagokio, 196 eskaintzekin eta % 18,25eko pisuarekin.

Laguntzarako teknikarien, kualifikaziorik gabeko langileen eta industriako okupazio-profilek ere ehunekotan pisu esanguratsua dute, % 10,00etik gorakoak, erregistratutako eskaintzen bolumenaren ehunekoak % 16,57, % 14,90 eta % 12,57 izanik, hurrenez hurren. Eskaintza gutxien dituzten profilak lehen sektorekoak eta zuzendaritzakoak izan dira berriz ere, 8 eta 7 eskaintza erregistratuz, hurrenez hurren.

Aurreko hilabetearekin alderatuta, lanpostu gehienetarako eskaintza-kopuruak behera egin du, eta laguntzako teknikariak eta kualifikaziorik gabekoak izan dira gora egin duten bakarrak (+15 eta +9 eskaintza). Aitzitik, balio absolutuetan beherakada handiena izan duten okupazioak lehen sektoreko eskaintzak izan dira, 28 eskaintza gutxiagorekin (-%77,78), eta ondoren administrariak eta ez-kualifikatuak daude, 14 eta 12 eskaintzarekin (-%13,59 eta -%6,98, hurrenez hurren).

Urte arteko saldoari dagokionez, joera errepikatu egin da, eta eskaintza-kopuruak behera egin du okupazio guztietan. Jaitsiera absolutu handienak kualifikaziorik gabeko profileko eskaintzetan (-60 eskaintza, -% 27,27), industrian (-47 eskaintza, -% 25,82) eta lehen sektorean (-26 eskaintza, -% 76,47) erregistratu dira. Aldiz, balio absolutuetan beherakada txikiena zuzendarien eskaintzek izan dute, 2025eko martxoan baino 4 eskaintza gutxiagorekin (-%36,36).

• KONTRATAZIO MOTA



Martxoan erregistratutako eskaintzen % 40,60a mugagabe motatakoak izan dira, eskaintzen % 58,85a aldi baterakoak eta gainerako % 0,56a merkataritzakoak. Kontratu mugagabeen eskaintzen ehunekoak % 0,46 egin du behera otsailarekin alderatuta, eta % 18,96ko jaitsiera izan du aurreko urteko hilabete berdinarekin alderatuz gero.

Mugagabeko eskaintzak, termino absolutuetan, 436 izan dira, hau da, otsailean baino 2 eskaintza gutxiago. Aldi baterako eskaintzen kopuruak behera egin du ere, 632koa izan da martxoan, aurreko hilabetean baino 54 gutxiago. Azkenik, merkataritza-eskaintzei dagokienez, 6 jaso dira martxoan, aurreko hilabetean baino 4 gutxiago.

Urte arteko saldoari dagokionez, kontratu mugagabeen eskaintzetan murrizketa egon da, 102eskaintza gutxiago jasoz (-% 18,96). Aldi baterako kontratuen kasuan, 92 eskaintzatako jaitsiera egon da (-% 12,71) eta merkataritzako kontratuetan 2025eko martxoarekiko konstante mantendu da.

• ESKATUTAKO ESPERIENTZIA-DENBORA



Martxoan erregistratu diren eskaintzen % 77,75ak, hau da, 835 eskaintza, 6 hilabete baino gutxiagoko esperientzia eskatzen du. Erregistratutako eskaintzen % 12,57ak (135 eskaintza) 6 eta 12 hilabete bitarteko esperientzia eskatzen du. Ehunekoak txikiagoak dira esperientzia handiagoa eskatzen duten eskaintzen artean, hala nola 1 eta 3 urte bitartean eskatzen dituztenak, % 7,36ko pisuarekin (79 eskaintza), 3 eta 5 urte bitartean eskatzen dituztenak, % 1,86ko pisuarekin (20 eskaintza), eta 5 urte baino gehiagoko esperientzia eskatzen dituztenak, guztizkoaren % 0,47ko pisuarekin (5 eskaintza).

Hilabete arteko alderaketari dagokionez, eskaintza guztiek bilakaera negatiboa izan dute. Jaitsierarik handiena 1 eta 3 urte arteko esperientzia behar duten eskaintzetan gertatu da, otsailean baino 22 eskaintza gutxiagorekin eta -%21,78ko jaitsiera erlatiboarekin. 6-12 hilabeteko esperientzia behar duten eskaintzak 14 gutxiago dira (% 9,40 gutxiago), eta ondoren 1-3 urte eta 6 hilabete bitarteko esperientzia behar dutenak (-% 37,50 eta -% 1,2, hurrenez hurren). Aitzitik, 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen duten eskaintzak ez dira aldatu otsailarekin alderatuta.

Urte arteko bilakaerari dagokionez, 5 urtetik gorako esperientzia behar duten eskaintzak dira gora egin duten bakarrak, aurreko urtean baino eskaintza 1 gehiagorekin (% 25). Gainerako kasuetan, oro har, behera egin du eskaintza-kopuruak. 6 hilabete baino gutxiagoko esperientzia behar dutenak dira jaitsiera absolutu handiena izan dutenak, 161 eskaintza gutxiagorekin (-% 16,16), ondoren 6-12 hilabeteko esperientzia eskatzen dutenak, 17 eskaintzetan murriztu direnak (-% 11,18) eta 1-3 urte behar dituztenak, 14 eskaintza jaitsierarekin (-% 15,05). Azkenik, 3-5 urteko esperientzia behar duten eskaintzek 3 gutxiago erregistratu dituzte (-%13,04).

• LANALDI MOTA

Ezer baino lehen, aipatu behar da lan-eskaintza guztiek ez dutela zehazten zer lanaldi egin behar den eskaintzak erregistratzeko orduan. Martxoan erregistratutako eskaintzen % 13,13ak soilik adierazi du lanaldia, hau da, 1.074 eskaintza guztietatik, soilik 141. 141 eskaintza horietatik, 102 lanaldi osokoak izan dira, eta gainerako 39ak lanaldi partzialekoak.



Bilakaerari dagokionez, lanaldi osoko eskaintzak 21 gutxiago izan dira otsailarekin alderatuz, hau da, honek -% 17,07ko murrizketa adierazten du. Lanaldi partzialeko eskaintzak aldiz, 12 gehiago izan dira, % 44,44 gehiago.

Aurreko urteko hilabete beraren aldean, joera errepikatu egin da: % 21,54 murriztu dira lanaldi osoko eskaintzak (-28 eskaintza), eta lanaldi partzialekoak ordea, % 18,18 (+6 eskaintza).

• ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)

Hilabete honetan 10 lan eskaintza kudeatu dira ABLEn bitartez, aurreko hilabetean baino 1 gutxiago eta aurreko urteko martxoan baino 4 gutxiago.

• ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA

Adierazle hau eskaintzak erregistratzeko orduan beti zehazten ez den beste alderdietako bat da. Martxoan, eskaintzen % 83,71ak, hau da, 899 eskaintza, ez du zehaztu eskatutako gutxieneko prestakuntza-maila. Beraz, 1.074 eskaintzetatik soilik 175k adierazi dute lanpostuko zereginak betetzeko eskatzen den gutxieneko prestakuntza maila.



175 eskaintza horietatik 68k Lanbide Heziketak eskatzen dituzte, gehien eskatutako prestakuntza maila izanda (% 6,33). Ondoren, unibertsitateko ikasketak eskatzen dituztenak datoz, 59 eskaintzekin (% 5,49); oinarrizko ikasketak arte eskatzen dituztenetan 35 eskaintza jaso dira (% 3,26); azkenik, batxilergoa eskatzen dituztenak, 13 eskaintzekin (% 1,21).

Otsailarekin alderatuta, eskaintza guztietan erregistratu da igoera, oinarrizko ikasketak egin arte eskatzen dutenen artean izan ezik, horietan 6 eskaintza jaitsi baitira (-%14,63). Lanbide Heziketako ikasketak behar dituztenek eta batxilergoa behar dutenek gora egin dute 9 eta 7 eskaintzatan (+%15,25 eta +%116,67, hurrenez hurren), eta unibertsitateko ikasketak eskatzen dituztenek igoera txikiena izan dute, eskaintza bat gehiago erregistratu baitute (+%1,72).

Urte arteko bilakaerari dagokionez, jaitsiera egon da eskaintza guztietan 2025eko martxoarekin alderatuta, batxilergoko ikasketak eskatzen dituztenetan izan ezik, 4 eskaintza gehiago izan baituzte (% 44,44). Unibertsitateko ikasketak behar dituztenek izan dute beherakada handiena

(-15 eskaintza, -% 20,27), eta, ondoren, derrigorrezko ikasketak eskatzen dutenek (-9 eskaintza, -% 20,45). Azkenik, Lanbide Heziketa behar duten eskaintzak 4 gutxiago izan dira (-%5,56).

• ESKAINTZAREN JARDUERA

EAEko enplegu-bulegoetan martxoan erregistratu diren eskaintzen bolumenagatik gehien nabarmentzen den jarduera Manufaktura industria da, 140 eskaintza baititu guztira, hau da, hilabetean erregistratutako eskaintza guztien % 13,04. Ondoren, Administrazio-jarduerak eta zerbitzuak eta Handizkako eta txikizkako merkataritza daude, 117 eta 116 eskaintzarekin, hurrenez hurren (% 10,89 eta % 10,80).

Aurreko hilabetearekin alderatuta, hazkunde absolutu handiena izan duten eskaintzak Manufaktura-industria (+24 eskaintza, % 20,69) eta Etxeetako jarduerak (+15 eskaintza, % 375) izan dira. Aitzitik, jaitsiera absolutu handiena izan duten eskaintzak Administrazio-jarduerak eta zerbitzuak izan dira, 43 eskaintza gutxiagorekin (-%26,88). Ondoren, Handizkako eta txikizkako merkataritzaren eskaintzak datoz, 34 eskaintza gutxiagorekin, hau da, -% 22,67.

2025eko martxoarekin alderatuta, aldiz, hazkunde absolutu handiena izan duten eskaintzak Ostalaritza (+27 eskaintza, % 35,06) eta Arte-, kirol- eta entretenimendu-jarduerak (+14 eskaintza, % 87,50) izan dira. Aitzitik, jaitsiera absolutu handiena izan dutenak Osasun eta gizarte zerbitzuetako jardueren eskaintzak izan dira, 87 eskaintza jaitsi baitira (-%45,79), eta Jarduera administratiboak eta zerbitzu lagungarriak, 64 eskaintza gutxiago, % 35,36ko jaitsierarekin.